



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **Lehiaren Euskal Agintaritzak Alokairu Turistikoko Etxebizitzen Erregulazioaren Praktika Hobeei eta Analisi Konparatiboari buruzko Azterlana aurkezten du**

Sektore honen erregulazio erangikorra posible egingo duen Euskadiko etxebizitza turistikoaren egoerari buruzko azterlan bat egitea beharrezkotzat hartu ondoren, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) *Alokairu Turistikoko Etxebizitzen Erregulazioaren Praktika Hobeei eta Analisi Konparatiboari buruzko Azterlana* burutu du. Etxebizitza turistikoaren sektoreak etengabeko hazkundera dagoen jarduera osatzen du eta honen erregulazioa Euskadin irakidura osoan aurkitzen da eta oraindik legezko esparru egoki baten marjinak zehaztu gabe. Azterlan hau EHUko Udako Ikastaroen barruan LEAk irailaren 14an Donostiako Miramar Jauregian egingo duen “Lehiaren Zuzenbidearen Gaurkotasun Gaiak” Jardunaldietan aurkeztuko da jendaurrean.

### **Bilbo, 2018ko abuztuak 3**

Jarduera turistikoa eta ostatu alternatiboen garapena, baita erabilera turistikorako etxebizitzak ere, gaurkotasunezko eta oihartzun sozioekonomikoko sektoreak dira; hauei beraien iraunkortasuna bilatzen duen erantzuna eman behar zaie arautze baten bitartez, bai erabilera turistikorako bai bizitegi etxebizitzen premiei erantzunez, eta ereduaren jasangarritasuna bermatuz.

LEAren aburuz arau konponbideak beti egon behar dira behar adina ebidentziek babestuta eta orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanlearen eta bereziki hiriburuaren interes orokorrei erantzun behar. Horregatik Azterlan honetan azaltzen diren ondorioak aztertutako hirien datu espezifikoei oinarritzen dira (bai EAEko hiriburuak bai nazioarte mailako erreferentziadun ereduak), bestelako tratamenduak behar dituzten errealitate desberdinak existitzen direla oinarri hartuta.

Hori dela eta, aurkeztutako azterlanak hau ondorioztatu du: *“EAEen ezarri ahalko liritezkeen praktika onak identifika daitezkeen modelo arautzaile desberdinak daude. Hala ere, praktika on hauek hartzean, beharrezkoa da EAEko errealitatearen eta egoeraren testuinguruan jartzea, baita eraginkortasunean, beharrez, proportzionaltasunean eta ez diskriminazioaren printzipioetan oinarritzea ere”*.

**[Alokairu Turistikoko Etxebizitzen Erregulazioaren Praktika Hobeei eta Analisi Konparatiboari buruzko Azterlanerako Sarbidea](#)**